

Uli festari buruz

HITZAK
gehiago
jakin nahi
izan du ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-12-09 ▶ III. urtea ▶ 758. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Naziotasun Eskubidearen Eguna izango da biharkoa

EHNA ▶ Aukera izango da herri ezberdinetan tramitazioa egiteko; Udalbiltzak antolatu du ekimena

ERABILI ▶ EHNA egiteak bakarrik ez, erabiltzeak ere «garrantzia handia» duela diote deitzaileek ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Atzegik egiten duen lanari erreparatuz

Etxeetako zerbitzua ematen du Tolosan eta Ikaztegietan ▶ 4

BITTOR MADINA



168 lagun en artetik 5 izan dira txapelketan irabazle

BERROBI ▶ Artola bakarka; bikoteka, Agirre-Lizardi eta Goikoetxea-Arrieta ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko sei aisialdi taldeekin solasean

«Pertsona askeak eta konprometituak» hezitzen dituzte ▶ 2-3

HIZKUNTZAK
• Helduentzat eta lantegientzat zuzendutako INGELERA Cambridge eta H.E. Oko azterketetarako prestakuntza, etab.
• FRANTSESA • ALEMANA • ARABIERA • EUSKARA
• GREKERA • ITALIERA • JAPONIERA
• HOLANDESA • Gaztelania atzerriarrentzat

ITZULPENAK
• INGELERA • ARABIERA • GAZTELANIA
• ITALIERA • ARABIAR itzulpen ziurtatuak

TALDE TXIKIAK
• Arreta PERTSONALIZATUA eta berezia
• LOGOPEDA zerbitzua • Hezkuntza berezia

ERREFORTZU KLASEAK
• MATEMATIKA • DISEINUA • FISIKA • KIMIKA

maila guztiak

Irakasle goa: bertakoa, kualifikatua eta esperientziaduna
M.J. Iraola, 2 behea • **TOLOSA** • Tel.: 943 67 24 48 - 686 97 19 62

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiria
bai

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 600 enpresa, ikastetxe, denda, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzeko gehiegik euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.
www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!
902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

AISIALDIA ▶

Gazte arduratsuak

Ekintzak burutuz, ondo pasatuz eta elkarrengandik ikasiz, «pertsona askeak, kritikoak eta konprometituak hezitzen» lan handia egiten dute eskualdeko aisialdi taldeek ERREDAKZIOA

ATSEDENA AISIALDI TALDEA ▶ TOLOSA

Historia. «Tolosako Santa Maria parrokiako fede heziketarako gunea da» Atsedena taldea. Donostiako Elizak bizi zuen egoeraren barruan eta giroan sortu zen, 1982. urtean. «Giro horren barruan, eta Sendotzan zebiltzan gazteei dei eginez, Tolosa 1982ko Pazko astearen begirale ikastaroa antolatuta zuten. Han ibilitako begirale talde batek eta orduko apaizak bultzatuta, Atsedena Taldea aisialdi talde bezala sortu zen».

Taldeakideak. «1998an heziketa proiektu berria garatu ondoren, gaur egun gure parrokiaren fede heziketa guztia Atsedena taldearen barruan sartzeko da gure nahia, eta lan horretan dihardugu. Jada katekesia integratzea soilik falta zaigu; hala ere, hauekin ere elkarlanean aritzen gara, eta zenbait ekintza antolatzen ditugu haien zati bat». 6 urteko haurretatik hasi eta helduen arteko 150 lagunek eta 25 suspertzailek hartzen du parte heziketa prozesu horretan, eta hainbat taldetan banatzen dira, helburuen arabera: «Txikiak, katekesi prozesuan dauden 6-11 urte bitarteko haurrak; gaztetxoak, katekesia bukatu ondoren 16 urte bitartekoak; gazteak, Sendotzak prestaketan daudenak; gazte-helduak, sendotza hartu ostean, beren fedeaz landuz eta hau gure gizartearen eta egunerokotasunean nola bizi aztertuz dabilen gazteak; eta helduak, bi taldetan banatuta, fede prozesuarekin jarraitzeko».

Helburuak. Heziketa proiektua ardatz izanik, helburu nagusiak

ondorengoak direla azaldu dute Atsedena taldeak: «Gure aukeretan azaltzen den gizakia lortzeko bidea eratzea; hau da, pertsona arduratsua, bere erabakiak hartzeko gai dena, kristau elkartean konprometitua, komunikaziorako gai, solidarioa, laguntzailea, irekia, bere fedeaz lantzen duena eta osatua —gizakiaren arlo guztiak kontutan hartzen dituen: naturala, gizarte, fede...—». Bestetik, Santa Marian heziketa prozesu bat finkatzea. Eta, azkenik, pertsonari hazteko aukera emango dion taldea eratzea, «inguruari buruz gogoez egiteko, iritziak eta idealak agertzeko, inguruko taldeei irekia, non norberak bere papera betetzeko aukera izango duen».

Ekintzak. Talde bakoitzak bere egutegia du bileretarako, asteburuetarako eta irteeretarako, baina badaude urtean zehar elkarrekin egindako ekintzak ere. Eguberrietako irteera da horietako bat. Inauterietako konpartsa beste bat, taldea sortu zenetik urterotik ateratzen dutena. Kanpamentuei dagokienez, azken urteotan Peñaloscintosen (Errioxa, Espainia) altxatzen dute Atsedena taldearen kanpa, «guraso askoren laguntzaz: muntaian, sukaldetan...», normalean uztaile bukaeran eta abuztuan. Bestetik, urtean behin begirale guztiak asteburu batean elkartzen saiatzen dira, «asteroko dinamikatik atera eta elkarrekin fede nahiz bizi esperientziak elkarbanatzeko. Aurten gure proiektua berritu nahi dugu».




Atsedena taldeko gazteak eta begiraleak, azken kanpamentuan. HITZA

SAN BERNARDO ESKAUT TALDEA ▶ TOLOSA

Historia. Santa Maria parrokiaren inguruan jaio zen, 1961an, San Bernardo eskaut taldea.

Taldeakideak. 12 begiralek eta 70 gaztetxok osatzen dute San Bernardo. Adinaren arabera, lau taldetan banaturik daude: «Koxkorrek, 7 eta 11 urte bitartekoak; Oinarriak, 12 eta 13 urtekoak; Azkarrak, 14 eta 15 urtekoak; eta Trebeak, 16 urtetik gorakoak».

Helburuak. «Urte hauetan guztietan ehunka gaztetxo pasatu dira taldetik, eta beti izan ditugu argi bi ardatz: eskautismoa eta bideratzea, gidatzea». Gaztetxoek gaur egungo egoera «zaila» dela diote arduradunek: «Sormenik eta iniziatibarik eza, errespetua ez baloratzea, konpromisoak hartzeko zailtasunak... Bizi garen gizartearen eraginak dira eta, horregatik, egunero-egunero hainbat balore landu behar ditugu gaztetxoekin, ongi hezitako pertsona askeak izan daitezkeen». Laikotasunean egiten dute lan, eta «elkarbizitza, talde lana, pertsonen eta inguru-


San Bernardokoak, Larraulen, ikasturte hasieran. HITZA

ri errespetua, konpromisoa, Euskal Herria herri bezala ikusi eta onartzea, eta naturarekiko errespetua» dira, besteak beste, landutako baloreak. Koxkorrek taldean jolasaren bidez hezitzen dituzte haurrak hainbat baloretan, Oinkarinek zerbait tailer egiten dituzte, eta Azkarren taldean gaztetxoek ere parte hartzen dute gauzak antolatzerakoan; «pixkanaka hartzen dituzten konpromisoak ugariago eta ardura handiagoak izatea bilatzen dugu».

Trebeak beste errealitateak ezagutzen saiatzen dira.

Ekintzak. Talde guztiak ostiralero edo larunbatero elkartzen dira, bi edo hiru igandero egun-pasa bat edo mendi irteeraren bat egiten dute, eta hiru hilabetero asteburu-pasa. Udan kanpamentuak egiten dituzte: aurten, batzuk Espainia eta Herrialde Katalanetako beste gazteekin batera izan dira Griebalen (Huesca, Espainia), eta beste talde batek Doñejakue bidea egin du.

TXIRIBITU AISIALDI TALDEA ▶ IBARRA

Historia. Txiribitu 1994an sortu zuten «Ibarrako parrokiaren inguruan zebiltzan lau gaztek: Arkaitzek, Ceciliak, Aitziberrek eta Anak». Herriko apaiza zenerekin hitz egin eta aisialdi talde bat sortzeko asmoa adierazi ondoren, beren proiektua aurrera eramatea erabaki zuten. Hasierako urteak ez zirela errazak izan diote Txiribitukoek: «Umeekin bildu ahal izateko lokala bazuten, ondo zaindua, eta ez zuten berrikuntza askorik egin behar izan. Baina aisialdi talde batek izan behar duen egituraz ez zekiten gehiagi. Zailtasunak zailtasun, lan egiteko gogoak bultzaturik urtean poderioz ikasten joan ziren». Baliabide materialik ere ez omen zuten, Udalararen eta Foru Aldundiaren diru laguntzen eskakizunak betetzea zaila zelako haintzat, «baina pixkanaka lortu dugu hau ere aurrera eramatea. Gazteak laguntzeko dugun gogoari eta umeen erantzun bikainari esker, Txiribitu haziz joan da».

Taldeakideak. Begiraleak eta 9 eta 14 urte bitarteko 35 gaztetxo, lau taldetan banatuta: Pon-



Txiribitu taldekoak, udako kanpamentuan. HITZA

txoak, Pitxitxiak, Urtxikiak eta Xingolak.

Helburuak. «Euskara, natura eta kristau baloreak lantzea dugu xede. Munduko errealitateak ezagutzeko arreta eskaintzen diogu, Ibarra eta gure aberria abiapuntu izanda, kristau baloreak euskari eta euskara bitartekari. Giza jokabidearen arloan hausnarketa dugu helburu». Begiraleen heziketari garrantzia ematen diote: «Txiribitu ez da soilik umeekin jolas egitea, begiraleen eta umeen heziketa egokia eta bizitzan elkarbizitzaren ikastea ere bai».

Ekintzak. Larunbatero elkar-

tzen dira, bi orduz. Mendi irteerak, Gabonetako irteera, eta Txiribitu Eguna ere egiten dituzte, eta Tolosako Inauterietan konpartsa ateratzen dute. Udalekuetan hainbat txoko ezagutu dituzte: Oiogoien, Artziniega, Irañeta, Agilera... Herriko ekintzetan ere parte hartzen dute: «Hauspoa kultur elkartean, kasu, ekintzak antolatuz: festetako jokoak, babarrun festa, azoka berezia, Gabonak, omenaldiak... Aisialdi talde bat izateaz gain, ibartarrez osatutako taldea garenez, herrian beste edozein taldek betetzen duen funtzioa betetzen dugulako».

KIRIKIÑO AISIALDI TALDEA ▶ TOLOSA

Historia. Duela hiru urte sortu zen Kirikiño aisialdi taldea. Gainberri, Jesusen Alabak eta Eskolapioak ikastetxeek bat egin zuten ikasturte horretan (2002-2003), eta Hirukide jaio zen. «Aisialdian ere hiru zentroetakoak batzearen beharra» ikusi zuten arduradunek, eta halaxe eratu zen aisialdi talde berria. Aurretik, Jesusen Alaben ikastetxean Alcor taldea 20 urtez arduratu zen eskolaz kanpoko ekintzetaz; eta Eskolapioetan, bestalde, 17 urte beteak zituen jada Txantxangorri aisialdi taldeak.



Bizkorrek taldekoak, aurtengo udan, Belagoa inguruan. HITZA

Taldeakideak. 11 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek osatzen dute Kirikiño, hiru taldetan banatuta: «Koxkorrek: 108 gaztetxo, LHko 5. eta 6. mailakoak; Bizkorrek: 120, DBHko 1. eta 2.

mailakoak; eta Helduak: 65, DBHko 3. eta 4. mailakoak». 30 begirale dira guztira.

Helburuak. Sei zutabetan du oinarri Kirikiñoren heziketa proiektuak: «Pertsona, norbe-

raren ezagutza; taldea, elkarren arteko ezagutza eta errespetua; Euskal Herria, gure herria ezagutzea eta maitatzea; natura errespetatzea eta zaintzea; fedea; eta konpromisoa, bizitzaren alor guztietan». Hori dena gauzatzeko, eta «ondo pasatzen norberarengatik elkarrengandik ikasteko», hainbat ekintza gauzatzen dituzte. **Ekintzak.** Ikasturtean larunbatero elkartzten dira Kirikiñokak, 16:00etatik 18:00etara, denetarikoa gaiak eta ekintzak lantzeko. Hiru hilabeteetan bitan edo hirutan, gainera, egun osoko jarduerak antolatzen dituzte: txangoak, mendi irteerak... Eguberrietan eta Aste Santuetan kanpamentu motzak egiten dituzte —«Barrian, Larraulen, Urnietan, Zestean, Loio-

lan...»—. Eta, udan, kanpamentu luzeak: «Koxkorrek Barriara joaten dira, bizkorrek Belaguarra, eta helduak mendi martxa egiten dute; azken urteotan, esaterako, Pirinioetan, Panticosa eta Belagoa artekoa», diote. Hauetaz guztiaz gain, bestelako ekintzak ere egiten dituzte urtero: «Eguberrietan eta Santa Ageda bezperan kantuan ateratzen gara, Inauterietan dantzan, Hirukideko Zaindarien Astean ere parte hartzen dugu, gurasoekin ere egiten ditugu ekintzak, formazio saioak ere antolatzen ditugu...». Ikasturte bukaeran, maiatza aldera, Kirikiño Eguna egiten dute; ospakizun eguna giro onean igarotzen dute, elkarrekin, gaztetxoek, begiraleek eta senitartekoek.

KAZKABARRA AISIALDI TALDEA ▶ TOLOSA

Historia. «1982an Joxe Mari apaizak ikastolako neska mutilen Sakramentinoetako denbora libre talde euskalduna sortu zuen Itxaropena izenarekin; 13 urtetik gorako neska-mutilentzat larunbat arratsaldetarako ekintzak antolatzen zituen. Hiru helburu zituen taldeak: euskara, natura eta kristautasuna», oroitu dute Kazkabarrakoeak. Pixkanaka taldea sendotzen joan zela diote, ekintzak ugari izateko eta begirale berri batzuk sartuz. Parrokiako talde bat zen Itxaropena: «Antolatzen ziren ekintzetan kristautasunaren presentzia zegoen. Denbora libreko mugimendua berria zenez, katekesiaren eta konfirmazioaren arteko zerbait bezela ulertzen zen. Taldea handitzen joatean eta Joxe Mari apaiza gaixorik egotean pixkanaka parrokiarekiko harremana hozten joan zen, eta kristautasuna ez zen lantzen.

Harremanak okertu egin ziren eta begiraleek taldeetik atera beharrean ikusi zuten beren burua, neska-mutilekin ekintzak antolatzeko gogoak jarraitzen bazuen ere. Zenbait guraso ere laguntzeko eskaini ziren. Egoera hartan, inoiz baino indar gehiagorekin ikusten zen taldea, eta egoitza bila hasi ziren». 1990-91 ikasturtean Laskorain ikastolara jo zuten begirale gazte haiek; ikastola Euskaraz Bizi proiektua indartzeko aisialdirako begirale bila hasitokotan zen. «Guk lokalak eskatu genizkionean, elkarlanean aritzeko aukera aztertu genuen». Taldeari Kazkabarra izena jarri, estatutu berriak egin eta ekintzak antolatzen jarraitu zuten, euskara eta natura ardatz hartuta. «Ikastolako umeen erantzun onak animatu egiten gintuen; oso urte onak izan ziren: begirale asko, ume asko, ideia asko...»



Kazkabarrako hainbat gazte eta begirale, Garden (Nafarroa). HITZA

Taldeakideak. «Gure ekintzak ikastolako neska-mutil guztiei eskaintzen dizkiegunez, zaila da partaideen kopuru zehatz bat ematea: batz bestea, LH3 eta LH6 artean maila bakoitze-

ko 50 ikaslek parte hartzen duela esan genezake; beraz, 200; DBHko 60 bat gehituta, guztira 260». Aurtun, 35 gazte dira begirale lanetan. **Helburuak.** «Euskaraz hezi-

tzen duen Laskorain ikastolako aisialdi taldea» da Kazkabarra. «Aisialdian ere euskaraz bizi-tzeko aukera ematea; gaztea kritikoa, autonomoa, tolerantia, aktiboa eta sortzailea izatea; eta aisialdia erabiltzen jakitea» dira helburu nagusiak. **Ekintzak.** LHn ekintza puntuak antolatzen dituzte: egun-pasak, jokoak, asteburuak... «DBHkoekin astero bilerak egiten genituen, baina azkenaldian ez ziren asko etortzen». Aurtun, ordea, gazteek hala eskatuta, hasi dira ekintzak antolatzen. Beste ikastola batzuerkin Euskaraz Bizi proiektuaren barnean udalekuak egiten dituzte. Euskararen inguruan antolatutako ekintzetan ere present izan dira Kazkabarrakoeak (Korrika, Bai Euskarari...); baita beste aisialdi taldeekin batera antolatutako ekintzetan ere: Olentzeroren etorrera, Erregeen kabalgata, Gaztegunea...

TTENTTEK AISIALDI TALDEA ▶ TOLOSA



Ttenttek taldeko hainbat gazte, Inauterietako konpartsan. HITZA

Historia. Duela 25 urte sortu zen Ttenttek aisialdi taldea. «Inox Urbistondo apaizak eukaristia ematen zuen garai hartan Santa Klara elizan. Gazte batzuk hari laguntzen hasi ziren, eta astero hantxe biltzen ziren. Egund batean Inoxek ikusi zuen dagoeneko 30 bat lagun zituela laguntzen, eta eukaristia eta gero elkartzten hasi ziren, bilerak eta jolasak egiteko», azaldu dute Ttenttek taldeko ordezkariak. Gero, Santa Klaratik San Frantzisko parrokiara aldatu ziren, eta hantxe hasi ziren elkartzten orduan. **Taldeakideak.** Une honetan 10 begirale eta 40 haurrek osa-

tzen dute Ttenttek aisialdi taldea. Dena den, kopuru hori ez dela beti bera izaten zehaztu dute taldeakideak: «Inauterietan, adibidez, 120 lagun inguru elkartzten gara, eta beste ekintza batzuetara ere jende asko biltzen gara». Adinari dagokionean, bestalde, 6 urtetik hasi eta 16 urte bitarteko gaztetxoak daude Ttenttek-en. **Helburuak.** «Taldeak erlijioa izan zuen oinarri eta jatorri». Orain, talde dinamika egiteko garaian, «giza baloreetan» oinarritzen direla azaldu dute; hala nola, «bakea, lagun urkoari laguntzea...». **Ekintzak.** Ikasturtean zehar

askotariko ekintzak egiten dituzte. Batetik, astero umeekin elkartzten dira. Bestetik, asteburu-pasak ere antolatzen dituzte, udalekuak, Gabonetako feria, urte bukaerako irteera, Inauterietan konpartsa ateratzen dute... Aurtengoa, gainera, urte berezia dela diote. «25 urte ez baitira urtero betetzen». Urteurrena ospatzeko, egitarau zabala antolatzen ari dira buru-belarri; ezustekorako tartea utzi nahi badute ere, zer edo zer aurreratu diote HITZARI: «Kontzertuak, Ttenttek eguna, monitore izandakoekin afaria eta elkarbizitza, Errealeko jokalariekin solasaldia...».

GIZARTEA ▶

Guztien gizarteratzea bideratzen

1960an sortu zuten Atzegi elkarte; ordutik hainbat zerbitzu ari dira eskaintzen Gipuzkoako txokoetan

NEREA LIZARTZA

1960. urtean sortu zuten Atzegi elkarte adimen urritasuna duten pertsonen senitartekoei. «Senideek laguntza beharra somatzen dute, euskarri bat nahi dute», azaldu du egun arduradun lanetan diharduen Jonek. Hori zela eta, eguneroko bizitzan hainbat zerbitzu eskaintzen zituen elkarte sortu zuten: Atzegi, alegia. «Gugana etortzen direnean nahiko helduak izan ohi dira; beraz, lan munduarekin lotura izan ohi dute. Hala ere, hori horrela izan ezean, Atzegi saiatten da lanerako lotura horiek egiten».

Sortuz geroztik, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Atzegik, guztiak Gipuzkoan, eta oraindik ere zerbitzua garatzen joateko asmotan dabilta; berrogeita bost urte hauetan aurre-rapen ugari egin badituzte ere, gehiago egiteko gogoz jarraitzen baitute. Nolanahi ere, Diputazioaren diru laguntzak jasotzen dituzte; ezinbestekoak elkartearen sostengurako.

Eskaintzen dituzten zerbitzuen artean etxeetako zerbitzua dago. Hemen, etxeko biztanleak elkarbizitzan egoten dira eguneko hogeita lau ordutan; kasuan kasu, monitoreen laguntza gehiagorekin ala gutxiagorekin. Gipuzkoa oso txokoetan zehar banatuta dituzte etxeak: Irunen, Donostian, Legazpian, Eibarren eta Aretxabaletan, besteak beste. Horiez gain, badaude beste batzuk jartzeko proiektuak; Donostian, esaterako.

Tolosaldean ere badituzte, baina, hainbat etxe: Ikaztegi-tan hiru, eta Tolosan, berriz, bi —Agintari eta Ibaiondo kaleetan, alegia—. Dena den, etxe bakoitzean behar duten laguntza ez denez bera, monitoreak horren arabera banatzen dituzte.

Tolosan, esaterako, ordu gutxi igarotzen dituzte monitoreekin: zehazki, 17:00etatik 22:15era. Gainontzeko ordu guztietan eurak bakarrik egoten dira. Hala ere, jaiegunetan hogeita lau orduak igarotzen dituzte monitoreekin, ia beti txangoak egiten baitituzte. Ikaztegi-tan, berriz, hogeita lau ordutan eskaintzen dute monitoreen zaintza.

Ibaiondo auzoan zortzi pertsona bizi dira, zazpi gizon eta

emakume bat, eta elkarren ondoan dauden bi etxeetan banatuak daude. Duela denbora gutxi arte Plaza Berrian bizi ziren, baina, han zuten etxea bota egin behar zuten, Udalak egun dituzten etxe berriak eman zizkieten. Horientzat bi monitore txandaten dira, eta «etxeokonde bat» ere badute eguneroko lanak egiten laguntzeko. Gehienek lana egiten dute etxetik kanpo, beraz, eguneko ordu asko lanean igarotzen dituzte.

Helburuak

Atzegiren helburuetako bat da, adimen urritasuna duten pertsonen zaintza ematek hasi, eta, ondoren, eguneroko ekintzetan burujabetasuna lortzen laguntzea. Hau guztia, baina, eurak gizarteratuz lortu nahi dute. Modu horretan, Tolosaldeko kasuan zentratuz, Ikaztegi-tako etxetik Tolosako etxera pasatzearen arrazoia hori izan ohi da, burujabetasuna lortzen joatea, alegia. Batzuk hasieran Ikaztegi-tan bizitzen hasten badira ere, egindako aurrerapenagatik eta lortutako burujabetzagatik, Tolosako etxeetako batera joaten dira, nahi badute, noski.

Ekintzak

Ia egunero ekintzak egiten dituzte; astean zehar hainbat lekutara joaten baitira lanetik irteetan aktibitateak egin asmoz. Astean bitan Ikaztegi-tako lagunekin elkartzen da Fausto, esaterako, hango frontoian palan jolasten ibiltzeko, eta, bide batez, lagun zaharrak bisitatzeko —Tolosako etxean baino lehen Ikaztegi-tan bizi baitzen—. Batzuk HHira ere joaten dira, dantza eskoletara joaten direnak ere badaude, Lazkao-mendira zaldian ibiltzera ere txangoak egiten dituzte...

Hori guztia astean zehar egin ohi dute, baina asteburuak ere ekintzez blai izaten dituzte. Dena dela, urteko sasoiaren arabera ekintzak aldatu ohi dituzte.

Horixe da Atzegik etxeen saillean eskaintzen duena. Horrez gain, bestelako egitasmoez ere arduratzen da. Kontuak kontu, «guztien gizarteratzea lortzeko pauso ugari ematen» jarraituko dute aurrerantz ere.



Tolosako etxeetako batean bizi direnetako batzuk, egongelan, telebista ikusten. NEREA LIZARTZA

DORITA ETA FAUSTO ▶ TOLOSAN ATZEGI-REN ETXEAN BIZI DIRA

«Pisukideekin gorabeherak izan arren, oso ondo moldatzen gara»

Urte mordo daramate Faustok eta Doritak Atzegiko etxeetan bizitzen. Duela hogeita urte baino gehiagotik bikotea dira, Fausto Ikaztegi-tako etxean bizi zen eta Dorita, oster, Villabonan; hainbat urtez bakoitza bere etxean bizitzen egon ostean, egun, Atzegik Tolosan dituen etxeetako batean bizi dira elkarrekin, gainontzeko pisukideekin batera.

Zer moduz daramazue elkarrekin bizitzea?

Oso ondo. Aspalditik gara bikote eta ongi ezagutzen dugu elkar, beraz, elkarrekin bizitzea lortuta gustura gaude.

Eta, gainontzeko pisukideekin, zer moduz moldatzen zarete?

Orokorrean, oso ondo. Batzuetan eztabaida txikiak izaten ditugu, baina, hori normala da elkarbizitzan gaudelako.



NEREA LIZARTZA

Orain etxe berrian bizi zarete; zer moduzkoa da?

Bestearekin konparatuz gero, oso ona. Ni lehen Ikaztegi-tan bizi nintzen, eta Tolosan bizitzeak erraztasun gehiago ematen dizkit, nahi dudana guztia eskura baitut.

Atzean utzi dituzue aspaldiko

lagunak, Tolosara etortzeko. Gogorra izan al zen banaketa hura?

Bai. Oraindik sarri askotan elkartzen garen arren, pena handia eman zigun elkarrengandik banatzeak, baina bizitza berriari hasiera ere eman nahi genion. ◀

LETZA ▶

**'Inork ez daki':
hau izanen da
azken saioa
oraingoz**

J. ASTIBIA

Gaur-etzikoarekin bukatuko dute aurtengoz, zine emaldiekin Leitzan. Beti bezala, gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean izanen dira saioak. Oraingoz, *Nadie sabe*, Japoniako filma izanen da ikusgai, Hirokazu Kore-eda zuzendariarena.

Pelikula berezi samarra izan liteke, aktore umeekin egindako lana delako gehienbat: Tokioko alokerako pisutxo batean ama bat bere lau seme-alabekin bizi da, laurak aita desberdinenak eta inoiz eskolaratu gabeak. Egun batean, ama *desagertu* egiten da, diru apur bat eta senideetan zaharrenarentzat, besteak zain ditzan ohartxo bat utziz. Laurek eraturako arauen ariara bizi dira, baina kanpoko munduari aurre egitean...

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

BERROBI ▶ KIROLAK



Frontenis txapelketan txapeldun atera ziren jokalaririk, herenegun, euren sariekin. BITTOR MADINA

**XIV. Txapelketak ere
baditu irabazleak**

Denera 168 fontenislarik jokatu dute eta Agirre-Lizardi, Goikoetxea-Arrieta eta Artolak jantzi dituzte txapelak aurtan

JAIONE ASTIBIA

Herenegun arratsaldean jokatu zituzten Berrobiko pilotalekuan XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketako finalak, kanpoko hotzari bertaratu ziren zaletu mordoskaren txalo beroz aurre egin eta ikuskizun eder askoarekin. Aurtengoz erabakita dago irabazleen zerrenda.

Horrela, aurrena emakumezkoen binakako finala jokatu zuten; 5 bikotetatik Amaia Agirre eta Nagore Lizardik eraturako bikoak irabazi zuten, Naiara Onsalo eta Lierni Garziarena beste finalistei 12 tantoko alde aterata.

Hurrena gizonezko bikoteen txanda egokitu zen, Jon Ander Goikoetxea eta Manex Arrieta garaile ateraz, azken marka-

gailuari erreparatu gero ez hainbesteko aldearekin, 30-24 bukatu baitzen partidua. Jorge Beloki eta Mikel Goitia azpitxapeldun atera ziren.

Jaialdia eta aurtengo txapelketa buruz-buruko finalarekin bukatu zuten. Mikel Goitiak aurretik jokaturako partidutik pixka bat itxaron zuenean, binakakoan ez ezik, binakakoan ere finalista baitzen, ekin zioten lanari berak eta Niko Artolak. Eta aurtengoarekin hamargarren aldiz, Artola gailendu zen, 30-13ko emaitza eskuratu. Berrobitarrak, berriz ere, aurkari bizkorrenetako dela erakutsi zuten, eta, oraingoz, bere garaitezintasuna sinatu.

Bakoitzak eskuraturako saria jaso zuten ondorengo binaketan. Jon Ander Izagirre zena-oren oroimenezkoan.

FINALAK ▶

BINAKAKO NESKAK
Amaia Agirre eta Nagore Lizardi 30, Naiara Onsalo eta Lierni Garziarena 18.

BINAKAKO MUTILAK
Jon Ander Goikoetxea eta Manex Arrieta 30, Jorge Beloki eta Mikel Goitia 24.

BANAKAKO MUTILAK
Niko Artola 30, Mikel Goitia 13.

ANOETA ▶

**Begiraleak behar
dira Gabonetako
ludotekarako**

Anoetako Kultur Batzordeak igorri duen ohar baten ariara, «abenduaren 26etik 30era eta ilbeltzaren 2tik 5era» antolatuko duten Gabonetako ludotekarako begiraleak behar dituzte. Aisialdiko saioak Ikastolan izanen dira, 11:00etatik 13:00etara, zehaztu dutenez. Izen-ematea uduletxean egin behar da, hilaren 13a, hurrengo asteartea, beraz, baino lehen, 09:00etatik 13:00etara.

TOLOSA ▶

**Bonberenea
txaranga kalera,
diskoa aurkeztera**

Gaur ostirala, Bonberenea txaranga kalera aterako da eta Tolosan atariz atari ibiliko da, taldeak atera berri duen diskoa «zuzenean» ezagutzera eman eta aurkezteko baliatuz, eta, bide batez, «herritarrak alaitzeko asmoz», HITZARA igorri duten jankinazpenak dioenez.

BELAUNTZA ▶

**Kultur etxea itxita
egonen da hilaren
18a bitartean**

Belauntzako Kultur Etxetik bertatik ohar baten bidez jakitera eman dutenez, zerbizua «itxita egonen da hilaren 18a arte». Aitazten denez, itxialdiaren arrazoiak, bestalde, bertako «dinamizatzailaren oporraldia» dela argitu dutelarik.

**TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO
HITZAN**

salgai

**Bertsolari Txapelketa
Nagusiko finalerako:**

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak

hitza

▶ **hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak**

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietaen prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

GAZTELU-OREXA ▶ GIZARTEA

NEREA LIZARTZA

Ulin urtero urriaren 12an egiten duten festak badu nahikoa historia; baita Ulik berak ere. Egun Ulira joanda ikusten dugun aterpetxea garai batean Mikeleteen —gerra aurreko euskal polizia-aren— etxea zen. Han kokatzea Mikeleteen, baina, ez zen kasualitatea izan; hainbat herritako eta lurralde historikotako mugak elkartzen diren tokia denez, gerra aurretik eta gerra ondoren handik pasatzen ziren produktuak kontrolatzea baitzen euren lana. Edonola ere, aduanaz gain, taberna zegoen eta jendearen bizitoki ere bazen.

Ulik Berastegirekin muga egiten duenez, produktuak Nafarroara edota Lizartza aldera bideratzea ekiditen zuten han kokatutako Mikeleteen. Garia, olio eta abereak izan ohi ziren mugaz bestalde gehien garraiatzen ziren produktuak; familiako kide bakoitzarentzat gramo kopuru zehatz bat besterik ez zuten uzten pasatzen, hortik aurrerakoak, kendu egiten zituzten. Bestalde, mendian dagoen tokia denez, inork ez zuten, bada, pentsatuko han Mikeleteen aurkitzerik.

Gerra Zibilaren ondorengo testuinguruak jendea gosea pasatzea eta janariak ahal zen modura lortzea bultzatu zuen. Dena den, guztia oso kontrolatua zegoenez, Mikeleteen presentzia egon ohi zen nonahi janariaren garraio hori guztia kontrolatu asmoz; hala ere, janaria guztientzat iristea ezinezkoa zen.

1984an, hainbat urteren ostean, garai batean Mikeleteen etxea eta aduana izan zen tokia konpontzeari ekin zioten; mendian dagoen txokoa denez, handik pasatzen ziren mendizaleentzat aterpe bat jartzea zuten jomuga. Orduan, Leaburu, Gaztelu eta Txarama bat ziren eta Joxe Kruz Gofñi —egungo Leaburuko alkatea— zegoen orain bi udalerriri direnen

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. Zure lagun minak urteak betetzen dituela? Zure aitona-amonon zilarrezko ezteiak direla? Bikotekidea zoriondu nahi duzula? HITZA egunkarian egunero-egunero argitaratzen diren zorion agur guztiak Interneten ikusteko aukera duzu. Sartu bere web orrialdean eta ikusiko duzu!

Historia handiko festa

Aurten egin ditu hogei urte gazteluarren eta orexarren arteko festak; urriaren 12a heltzen deneko historia handiko festa ziurtatuta izaten dute bi herri horiek



1985ean Uliko aterpearen inaugurazioan; hemen hasi zen hogei urtez, behintzat, bizirik dirauen gazteluarren eta orexarren arteko festa. HITZA



Itxura hau hartu zuen —eta egun ere itxura horixe du— Mikeleteen etxe berrituak. HITZA

alkatetzan. Proiektua eskuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundira joan ziren, eta, han, berritze lanak hasteko diru laguntza eman zien. Asmoa kontuan izanda, Tolosako mendizale elkarte batzuekin ere harremanetan jarri ziren haien laguntza ere lor zezaten. Berastegiren eta Gazteluren lurrek bat egiten duten tokia den arren, Mikeleteen etxea —ondorengo aterpea— Gazteluko lur-erri zegokien zati bat eta gainontzekoa, berriz, Diputazioari; azken honek bere lurretan egiteko baimena eman zion.

Behin proiektua esku artean izanda, bideratzen hastea ezinbestekoa zen. Horretarako, herritarrak auzolanean aritu ziren gau eta egun, xede bakarra

aterpea eginda ikustea zutelako.

1985ean amaitu zituzten obrak, eta, hori ospatzeko, inaugurazio ekitaldia egin zuten. Jende andana bildu zen Ulira txabolaren eta inguruen egitura ikustera; urriaren 12a hautatu zuten ospakizunerako. Egun hura tradizio bilakatuko zela gutxiak uste bazuten ere, hogei urteren ostean tinko eusten diote gazteluarrek eta orexarrek Uli Festa izenez ezagunagoa den jaiari. Baina, zergatik elkartzen dira festa hori ospatzera gazteluarrek eta orexarrek?

Beti egon delako gazteluarren eta orexarren artean adiskidetasuna; hala azaldu dio, behintzat, HITZARI, Orexako al-

kate Haritz Luloagak. Adiskidetasun horren zioak asko izan daitezkeen arren, garrantzitsuena, behinik behin, bi herriek fisikoki duten gertutasuna izan daiteke.

Dena dela, historian zehar asko izan dira bi herrion artean sortu diren bikoteak; batetik, gazteluar asko ezkondu delako Orexara. Bestetik, berriz, Orexan beti egon delako Gaztelurako joera. Ondorioz, 1985eko inaugurazio ekitaldi horretara orexarrek ere joan ziren.

Gaur egungo festa

Uliko pagadi baten gerizpean; udazkenaren hasierak eskaintzen duen paisaia koloretsuaz gozatzeko parada ere izaten

dute eurek izaten duten festa giroaz gain. Ohitura zaharrak, baina, errespetatzen jarraitu nahi dute.

Haatik, Gazteluko alkatea, Patxi Navasek HITZARI azaldu dionez, «festa honen tradizioa denborarekin aldatzen ari da; gizartearen gertatzen diren gorabeheren isla dira festa honetan gertatzen diren aldaketak». Egitarau zehatzik gabeko eguna da; momentuko aldatetako agintzen duena egiten baitute bazkalostean. Dena den, badira ekintza batzuk ia urtero errepikatzen direnak, herri kirolak, esaterako. Hala ere, Navasek adierazi duen legez, «ez dago lehiarik bi herrien artean».

Bi udalek diru laguntza ematen dute festa hori ospa dadin. Urteak urtera jende kopuruari dagokionean aldaketa txikiak egoten diren arren, menua ez da batere aldatzen; orexarrek prestatzen dituzte babarrunak, eta, saihestu hezurak, berriz, gazteluarrek.

Joxe Mari Etxeberria gazteluarra ibili ohi da urtero antolaketan lanetan. Tradizioak aldatzen ari direla aipatzeaz gain, gazteak gero eta gutxiago joaten direla ere gehitu du. «Egun-go gazteek beste ohitura batzuk dituzte, eta, beraz, ez dira gure festara etortzen», adierazi du Etxeberriak.

20 urte daramatzate tradizioari eusten, eta guztiak itxaropentsu daude beste hainbeste tradizioari eusteko.

GIZARTEA ▶

Naziotasun Eskubidearen Eguna, bihar

Eskualdeko herrietan EHNA tramitatzeko aukera izango da

IÑIGO TERRADILLOS

Naziotasun Eskubidearen Eguna izango da bihar Udalbiltzak antolatuta, eta hori dela eta Euskal Herriko 200 herri baino gehiagotan deialdi bereziak antolatu dituzte bai bihar

eta etzi, bai eta datorren asteburuan ere EHNA tramitatzeko. Hala, Tolosaldeko nahiz Leitzaldeko herritarrek euren herrietatik mugitu gabe egin ahalgo dute eskaria, izan ere, herri guztietan jarri dute hitzordua horretarako.



Tolosaldeko Bai Euskal Herriari ekimenak egindako agerraldia. HITZA

EHNA tramitatzeko deialdi bereziak zehaztu badituzte ere, gogorazi nahi dute hainbat herritan jada badela edozein egunetan eskaria gauzatzeko

aukera, eta Aduna, Alegia, Leaburu eta Zizurkil dira horren adibide, herri horien udaltekoko bulegoetan hasiak baitira tramitazioak noiznahi egiten. Hala, Bai Euskal Herriari herri ekimenak dei egiten die herritar guztiei Udalbiltzak antolaturiko Naziotasun Eskubidearen Egunean parte har dezaten, bai EHNA eginez, bai eta Nazio Batuetara bidali asmo dituzten eskaera ofizialak izenpetuz; izan ere, EHNA egina dutenek, egun horretan egiten dutenekin batera, Udalbiltzak, Nazio Batuetako Goi mandatarari bidaliko dizkion eskaera ofizialak izenpetu ahal izango dituzte, «euskaldunon naziotasun eskubidea errespetatzea exijituz».

Halaber, Bai Euskal Herriari ekimenak gogorazi du 2001. urtean Udalbiltzak EHNA abian jarri zuenetik 50.000 euskal herritar baino gehiagok esan diotela «bai» euskal naziotasunari: «Milaka herritarrok EHNA eginez gure borondatea adierazi dugu eta Euskal Herria hautatu dugu, ukazioen gainetik, lokaletan arrotzak moztu eta eskuz esku Euskal Herriaren izana eta eguneroko praktika lotzeko

tresna eskuratu dugu», azaldu dute. Hala ere, tresna izanagatik, gaur egun ez dela euskal herritarrok gure naziotasuna izateko dugun eskubidea errespetatzen salatu dute, eta baita «Espainiako eta Frantziako gobernuen eraginez, ezin gairela Euskal Herrian euskal herritar gisa bizi» ere.

EHNA Erabili Eguna

Bestalde, EHNA egin bai, baina erabiltzeak ere duen garrantzia azpimarratu du Bai Euskal Herriari ekimenak, eta hain zuzen ere, bere erabilpena bultzatzeko eta onarpena zabaltzeko hildaren 23an EHNA Erabili Eguna antolatu du, herritar guztiei gonbita luzatu antolatuko dituzten ekimenetan parte hartzera. «Ekimen horiek emaitza bat dute helburu: EHNA onartzea, eta euskal herritarren nortasuna eta naziotasuna onartua izatea», azaldu dute.

Hala, orain artean egin dituzten ekimenei esker, hainbat lekutan EHNA onartzen dutela azaldu dute: «baina aurreranzko pausuak egin diren bezala, izan da atzerapausurik», gehitu dute Eusko Trenbideak adibide bezala emanez, izan ere, zehaztu dutenez, «lehen EHNA onartzen bazuten ere, egun ez onartzeko erabakia hartu dute».

Pausuak aurrerantz izan daitezten, «opari» bat egitea eskatu diete herritar guztiei Euskal Herriarentzat; «Euskal Herriari, gabon hauetan egin diezaiogekun oparirik onena Gabonetatik aurrera nor garen aditzera ematea eskatzen diguten bakoitzean EHNA erakustea da eta hori eskatzen dizuegu, EHNA erakutsiz, Euskal Herriaren onarpena eta aitormena zabaltzen baitugu», adierazi dute Bai Euskal Herriari ekimenei.

NAZIOTASUN ESKUBIDEAREN EGUNA ▶

Naziotasun Eskubidearen Eguna izango da bihar Udalbiltzak antolatuta, eta horren harira Bai Euskal Herriari-k EHNA tramitatzeko deialdiak antolatu ditu. Eskualdean ondorengo egun eta lekuetan egin ahalgo da:

BIHAR

- Aduna.** 17:00etatik 20:00etara udaltekuan.
- Alkiza.** 18:00etatik 20:00etara udaltekuan.
- Berrobi.** 16:00etatik 20:00etara udaltekuan.
- Irura.** 10:00etatik 13:00etara udaltekuan.
- Larraul.** 12:00etatik 13:00etara udaltekuan.
- Leitza.** 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara udaltekoko batzar aretoan.
- Villabonan.** 11:00etatik 13:00etara udaltekuan.
- Zizurkil (Behea).** 11:00etatik 13:00etara udal bulegoetan.

ETZI

- Abaltzisketa.** 10:30etik 13:30era udaltekuan.
- Albiztur.** 11:30etik 14:30era udaltekuan.
- Alegia.** 11:00etatik 14:00etara udaltekuan.
- Altzo.** 11:00etatik 13:00etara udaltekuan.
- Amezketeta.** 09:00etatik 12:00etara udaltekuan.
- Asteasu.** 11:00etatik 14:00etara udaltekuan.
- Belauntza.** 11:00etatik 13:30era Kultur Etxean.
- Berastegi.** 16:00etatik 20:00etara udaltekuan.
- Hernialde.** 12:00etatik 16:00etara udaltekuan.
- Lizartza.** 11:00etatik 13:00etara udaltekuan.
- Orendain.** 11:00etatik 13:00etara udaltekuan.
- Villabona (Amasa).** Kultur Etxean 11:00etatik 13:00etara.
- Zizurkil (Goia).** 11:00etatik 13:00etara udaltekuan.

ABENDUAK 16

Ibarra. 19:00etatik 21:00etara udaltekuan.

ABENDUAK 17

Anoeta. 11:00etatik 14:00etara udaltekuan.
Gatzelu. 11:00etatik 13:00etara udaltekuan.
Tolosa. 10:00etatik 19:00etara udaltekuan.

ABENDUAK 18

Elduain. 11:00etatik 14:00etara udaltekuan.

ZEHAZTU GABE

Leaburu, Baliarrain, Bidegoian, Ikaztegieta eta Oresa. Datorren asteburuan, hau da, hilaren 17an edo 18an izango dela EHNA tramitatzeko deialdia herri hauetan azaldu dute antolatzaileek. Oraindik, ordea, egin ahal izateko eguna eta ordutegia zehazteko dutela adierazi dute.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

bonekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

